



北京曼波



mambo beijing



the balde



0€

urria | ezaroa
october | november

66

66



the balde

antsoain 1

31014 iruñea

t. +34 948 12 19 76

f. +34 948 14 82 78

donostia ibilbidea. 11 behea

20115 astigarraga

t. +34 943 44 44 22

f. +34 943 33 60 66

www.thebalde.net

info@thebalde.net

publi@thebalde.net

m. +34 686 485 980

publizitatea bizkaian / publicity in bizkaia:

manukleart

+34 644 257 027

bizkaia@thebalde.net

harpidetzak / suscriptions: goizeder anton

argitaratzailea / publisher: eragin.com . komunikazioa eragin sl

editore / editor: iñigo martinez

zuzendaria / director: koldo almandoz

diseinu burua / head of design: martin etxauri

zuzendari komertziala / comercial director

& publicitatea / publicity: iñigo martinez

diseinua / design: martin etxauri, iker bereziartua, eneko etxeandia.

itzulpenak / translations: smiley, 11 itzulpen.

ale honetako kolaboratzaileak / collaborators this issue: uxeta labrit, agurtzane

ortiz vivian cao, roger vicente, andor zhangdongxu, yanwei, wangermu, cazhuxi

zhangshihao, nio liu, zhao dabao.

ale honetako argazkilariak / photographers this issue: the balde crew, triz vega.

komikia / comic: andor

azaleko irudia / cover image: judas arrieta


harpidetza orria / subscription page: uxeta labrit

aurkibidea / sumary: judas arrieta

inprimategia / printed at: espacegrafic

lege gordailua / legal: na-3244/01

The Baldek sortutako eduki guztiak honako lizentzia pean daude:

 Aitortu-EzKomertziala-LanEratorririkGabe 2.5 Espainia

Aske zara: lan hau kopia, banatu eta jendaurrean hedatzeko ondorengo helbidean zehazten diren baldintza zehaztetan: <http://www.thebalde.net/lizentzia>

THE VENOMS

CHINESE GODS



Eusko Jaurlaritzako
Kultur sailak diruz
lagundutako aldizkaria



AQUI ESTAMOS ...

脚一拳一
福新賀恭

命攞着着

合作傾動馬體班黃
力員總人全家

一槍刀

顯管架巴殺
林勞勞閉到
危處日天
險處處月昏
無地
光黑

STAYREAL

Lan berritzaile, irudimentsu eta ausartak egiten dituzula? bidali iezazkiguzu: Imaginative, provocative and interesting works? send them to: info@thebalde.net

judas arrieta
editore gonbidatua
host editor



www.judasarrieta.com

2005ean Txinara joatea erabaki nuenean, jendeak ero bat nintzela uste zuen; orain, askori balentria bat iruditzen zaio erabaki hura, eta aitzindari bat, bi potro dituen tipo bat naizela uste du. Zazpi urte igaro dira, eta arrazoi dutela uste dut. Ero bat naiz. Ero zoriontsu bat. Txina herrialde liluragarria da. Jendeak definitzeko eskatzen dit, hemen gertatzen denaz hitz egiteko eskatzen didate... Eta nik esaten diet badirela 500 euroko hegaldiak eta egin dezatela haiek ere erokeria bat. Txina kaos bat da, eta, hala ere, gauzek funtzionatzen dute; "far east" da, "izenik gabeko hiriaren legendan" bezala, aukeren eremua, egon beharreko lekua; bertan eroriz gero, ez zara sekula berriro altxatuko. Eta berdin dio zure bizitza erraza edo gogorra den, zeren eta txinatarrei kantatzea gustatzen baitzaie, eta bizitza musikal bat da. Txinatarrek gomaz eginda daude, malguak dira, ez dira inoiz hausten. Beijing bezalako hiri batean bizitzeko oso aproposa da superbotere hori.

Nire bizitza Beijinen aztoragarria da, ez nago inoiz geldirik, beti nabil mila gauza egiten. Urte hauetan era askotako lanak egin ditut: telebista saioak, erakusketak galerietan, museoetan eta klubetan, aktore lanak telesailetan, kazetarientzako lanak, elkarrizketak musikari, artista, modelo, zinegile eta abarrei, enbaxadekin eta hainbat instituzioren lan egin dut kultur ekitaldiak antolatzen... baina beti dut sententzia bera: inork ez didala kasurik egiten. Beijingek 20 milioitik gora biztanle izango dituelako izango da. Eta, egia esan, txinatarrentzat nire moduko kanpotarrak inurri baten puzkarraren modukoak dira. Ez naute herrialdetik botatzen emakume txinatar batekin ezkondu eta zoriontsu bizi naizelako, eta ongi portatzen naizelako, nire jaioterrian portatzen ez naizen moduan.

Aldizkarian azaltzen diren gehienak, artistak, ilustratzaileak, diseinatzaileak, komikigileak, idazleak, arte kritikariak, musikariak eta miresten dudana jendea dira, nire lagunak (maite zaituztet!). Beijingeko eszena alternatiboan mugitzen den jendea da, ez "cool" edo interesgarria delako, baizik eta hori delako egokitu zaien eremua. Urte batzuk barru goi mailan izango dira, eta ez kontaktuengatik edo aitapontekoengatik, baizik eta oso onak direlako. Aldizkarian jorratu ditugun gaiak ere gertukoak izan dira, bitxikeriak, eta Txinan izandako esperientzietan oinarritutakoak. Herrialde honetaz ematen den irudi estereotipatuarekin inolako zerikusirik ez duena.

Amaitzeko, nire sekreturik ezkutuena kontatuko dizuet. Txinan zoriontsu jarraitzeko arrazoi nagusia. Etxera itzultzen naizen aldioro, sofan eseri, telebista jarri, eta beti jartzen dute Kung fu pelikula bat! YEAHHHHH!!!!

When I decided to go to China in 2005, people thought I was mad. Nowadays, many people think that taking that decision was an exploit and that I'm a pioneer, a bloke with balls. Seven years have gone by and I think they're right. I'm mad. I'm happily mad. China is a marvellous country. People ask me to define it, to speak about what's happening here ... And I tell them there are flights for 500 euros and that they, too, can do something crazy. China's chaotic but, even so, everything works. It's the "Far East", as in the legend of "A City with No Name", a place you have to go to: if you fall down there, you'll never get up again. And it doesn't matter if your life is easy or hard because Chinese people like singing and their life is one long musical. The Chinese are made of rubber, they never break. As Beijing is a tough place to live, having super-powers there is very useful.

My life in Beijing is a commotion, I'm never still, I'm always doing a thousand things. During these years I've done many different types of work: tv series, exhibitions in galleries, museums and clubs, an actor in tv series, journalism, interviews with musicians, an artist, a model, a film-maker and so on... I've organised cultural events for embassies and many other institutions... but I've always had the same sensation: nobody pays me any attention. That'll be because there are more than 20 million people in Beijing. And, in fact, foreigners like me are like ants for the Chinese. They won't kick me out of the country because I'm happily married to a Chinese woman and I behave myself, not like in my own country.

Most of the people in this magazine –artists, illustrators, designers, comic writers, writers, art critics and musicians– are people I admire, they my friends (I love you all!). They're people who work in Beijing's alternative scene, not because it's cool or the most interesting thing there is, but just because it's what's befallen them. They'll be at the highest places in a few years, and not thanks to contacts or patrons, but just because they're very good. The subjects in the magazine are things I'm close to, strange things, based on my experiences in China. Things that have nothing to do with the stereotypes about this country.

In end, I'm going to tell you my best-guarded secret. The main reason I'm still happy in China. Whenever I go back home, I sit on the sofa, turn the tv on and watch a Kung Fu film! YEAHHHHH!!!!



koldo mitxelena kulturunea
urdaneta 9
20006 donostia
kmk.gipuzkoakultura.net



iñaki olazabal zeinuak

ganbara
azaroaren 7tik - abenduaren 29ra
asteartetik larunbatera - 16:00-20:00



fiona tan abiapuntua

erakustaretoa
urriaren 30etik-urtarrilaren 26ra
asteartetik larunbatera
11:00-14:00 / 16:00-20:00



THE BALDE 2013 AGENDA PRESTATZEN ARI GARA. URTERO BEZALA SORTZAILE EZBERDINAK GONBIDATU DITUGU BERTAN PARTE HARTU ETA BEREN LANAK ERAKUSTERA. AURTEN, GONBIDAPEN HORI ZABALTZEKO ERABAKIA HARTU DUGU. ARTEZIAK EGITASMOAREN (ARTEZIAK.NET) LUZAPEN BATEN MODUAN, ZUK ERE IZANGO DUZU, AUKERATUA IZANEZ GERO, ZURE LANA 2013. URTEKO AGENDAN IKUSTEKO AUKERA. BETEBEHAR BAKARRA ZURE SORKUNTZA LANAREKIN DENBORAREN IRAGANA IRUDIKATZEA. EDOZEIN TEKNIKA ETA BALIABIDE GRAFIKO ERABILI DEZAKEZU DENBORAREN MENPE BIZI GARELA IRUDIKATZEKO.

LANA ENTREGATZEKO EPEA URRIAK 31. BIDALI ZURE LANA INFO@THEBALDE.NET HELBIDERA.

WE ARE WORKING ON THE 2013 THE BALDE AGENDA. AS IN PREVIOUS YEARS, WE HAVE INVITED DIFFERENT CREATORS TO PARTICIPATE IN IT THIS YEAR WE ARE OPENING THE CALL. AS PART OF THE ARTEZIAK PROJECT (ARTEZIAK.NET), YOU WILL ALSO HAVE THE CHANCE TO PARTICIPATE AND IF YOUR WORK IS SELECTED IT WILL BE INCLUDED IN THE 2013 THE BALDE AGENDA. THE ONLY THING YOU HAVE TO DO IS TO SHOW AS YOUR GRAPHIC INTERPRETATION OF THE "TIME GOES BY" CONCEPT.

DEADLINE OCTOBER 31.
SEND YOUR WORK TO INFO@THEBALDE.NET.

NEURRIAK ETA BETEBEHAR TEKNIKOAK / SIZES AND TECHNICAL SPECIFICATIONS

Artxibo mota / Archive type: TIFF, JPG edo PDF
Neurriak7 Sizes: zabalera (wide) 11cm x altuera (tall?): 16cm
Erresoluzioa / Resolution: 300 ppp
Odola / Blood: 3mm
Koloreak / Colors: CMYK moduan

arraspatu eta irabazi

Txinako gobernuak oso sistema irudimentsua asmatu du jendeak faktura egin eta eska ditzan. Faktura bakoitzean, laukitxo batean, harraskatu eta sariak irabazteko aukera duzu. Modu horretan, bezeroak beti eskatzen du faktura, hala eginez gero diru saritxo bat poltsikoratu dezakeelako.

scratch and win

The Chinese government has come up with a highly imaginative system to get people to issue and ask for invoices. There's a small box on every invoice you can scratch and maybe win a prize. This means that clients always ask for invoices because it means they have a chance to win a bit of money.



fetu jaleen legenda

Diotenez, aberatsen artean, antzinako ohitura gastronomiko bat jarri da modan. Fetuak jatea. Legenda kutsua du, nahiz eta txinatarrek zalantzarik ez duten. Gisa horretako sinesmen asko dago. Horren adibide, saltoki-guneetan eta supermerkatuetan dagoen ume lapurreten psikosia. Umeen lapurreta kasu asko gertatzen da, beraz, Txinan bazaude, kasu ezezagun baten haurrarekin sinpatikoegi izateko asmoa baduzu!

the legend of the foetus eaters

Apparently, an ancient gastronomic custom has become fashionable amongst rich people. Eating fetuses. It's a false legend, although Chinese people don't doubt it. There are many beliefs like that. For example, psychosis about children being stolen in supermarkets and shopping centres. There are many cases of children being stolen so, if you go to China, be careful about being too friendly with the children of people you don't know!

DANCING IN THE STREET



dantzaleku inprobisatuak

Dantza zaleak dira Beijindarrak. Sasoi beroan, iluntasunak giroa apur bat freskatzen duenean, dantzalekuak antolatzen dituzte edozein kale txokotan. Bizitzak aurrera darrai, trafikoa ez da eteten, dendak ez dira isten, baina edozein tokitan musika jarri eta jendea dantzatzeko biltzen da. Gure garai bateko erromerien moduan, bikoteak, dantzan ikasten dabiltzan gazte mozoloak, txutxu-mutxuka dabiltzan aitona-amonak eta... elkartzen dira.


improvised dancing places

The people of Beijing love dancing. During the hot season, when it gets a bit cooler in the evening they set up places for dancing anywhere in the street. Life goes on, traffic doesn't stop, the shops don't close, but people get together anywhere, play music and dance. Just as we used to get together at town festivities, so now couples, young people who are learning how to dance, gossiping grandparents... all get together.

16th – 25th NOVEMBER

CINEMAD

XIX MADRID INDEPENDENT & CULT
FILM FESTIVAL



XIX MADRID INDEPENDENT & CULT
FILM FESTIVAL

XIII INTERNATIONAL SHORT FILM COMPETITION

ENTRY DEADLINE 31st OCTOBER 2012

SEND YOUR SHORT FILM!

ENTRY FORM AND CONDITIONS INFO : WWW.CINEMAD.ORG

COLLABORATORS:



ORGANIZERS:



CINEMAD@FESTIMAD.ES

SARRERA DEBALDE



JAZZPANDA!

PEST
2012

Urriak 26 eta 27 / *Bernabeu* Beasain

OSTIRALA

• ERROMA-MUTÛBELTZ-LISABÕ-NO MORE LIES-DJ BUSBU •

LARUNBATA

• CUARTO DE HORA-SUMISION CITY BLUES-BIGOTT •

• BELAKO-WILHELM AND THE DANCING ANIMALS •

• OBITS-ALIMENT-ESTEREOTIPO-DECKART DJ •

ETA ASKOZ GHIAGO

SKATE LEHIAKETA, BASKET 3X3, ARGAZKI RALLYA, JAZZPANARTURRIAK 21-25



URRIAK 26 eta 27
BEASAINen
DEBALDE!



chinoccita

Beijingen bizi den Roger Vicente kameralariari zor diogu Chinoccitaren deskubrimendua. Beijingeko zine eta telebista estudioaren atarian dozenaka pertsona biltzen da aukera baten bila. Edonork aktore bat behar badu, bertara joan eta kastina egin dezake kalean bertan. Egungo aktore ezagun gutxi batzuek modu horretan topatu zuten beren lehendabiziko aukera, eta orain ospetsuak dira. Horietako batek bere aukera izan zuen han filmatu berri den euskal ekoizpen batean.

chinoccita

It's thanks to Beijing resident and cameraman Roger Vicente that we've discovered Chinoccita. Dozens of people go to the doors of Beijing cinema and tv studios searching for an opportunity. If anyone needs an actor, all they have to do is go there and organise the casting right there, in the street. A few actors who are now famous got their first opportunities that way. One of them got her first chance and appeared in a Basque production.

CASTING CARTING CRICKETING



kilkerrak

Udaberri eta uda sasoietan, Beijingeko merkatu eta kaleetan kilker saltzaileak azaltzen dira nonahi. Kilkerren kantua oso lotuta dago Txinako kulturari. Gauean, kilker bat jartzen dute ohe alboan, kaiola txiki batean sartuta; kilkerren kantuarekin lo hartzea atsegin dute txinatarrek. Bestetik, kilkerren arteko borrokek ere tradizio handia dute. Egun, 10 bat milioi pertsonaren ogibidea da kilkerrek haztea. 100 yuanengatik (812 €) eraman dezakezu kilker kantari bat etxera, baina, borrokarako txapeldun bat nahi baduzu, 8.000 yuantik (1.000 €) gora ordaindu beharko duzu.

crickets

In spring and summer cricket sellers pop up everywhere in the streets of Beijing. Crickets' song is closely connected with Chinese culture. At night they put a cricket next to their beds in a small cage: Chinese people like going to sleep to their sound. There is also a long tradition of cricket fights. Nowadays 10 million people make their living raising crickets. For 100 yuan (12 €) you can take a singing cricket home, but for a fighting champion you'll have to pay at least 8,000 yuan (1,000 €).



fast and furious

Vin Diessel-en tuning makarriskoak sustriak errotu ditu Beijingeko gazte aberatsen bizitza estiloan. Mix bezalako diskoteka ezagunetako atarietako aparkalekuan ikusten diren luxuzko auto garestiek, gaueko ordu txikietan, Pekin inguratzen duten autobide eraztunetan lasterketak eta tronpo erakustaldiak egiten ikustea ez da batere ezohikoa.

fast and furious

Vin Diessel's yobbish tuning has its origins in rich young people's lifestyle in Beijing. Expensive luxury cars are to be seen in front of discotheques such as Mix in the early hours and it is not uncommon for them to take part in races on the ring roads around the city.

**Ikaragarri
gustatzen
zait the way
you talk
to me
maitia!**



**Iruñeko
Hizkuntza
Eskola
Ofiziala**

- | | | |
|--|--|---|
| ● euskara | ● alemana | ● txinera |
| ● ingelesa | ● gaztelania | ● japoniera |
| ● frantsesa | ● italiara | ● arabiera |

KONPAINIA KALEA 6 - 31001
<http://centros.educacion.navarra.es/eoip>
 948 20 63 43

EDIZIOAK ETA INPRESIOAK OROKORREAN
EDITING AND PRINTING IN GENERAL

Inprimakiak, katalogoak, liburuak, liburuskak, aldizkariak, aurreinpresioak
 Forms, catalogues, books, brochures, magazines, preprinting

espacegrafic Pol. Ind. C/G, Nº 11 · 31192 Mutilva Baja · Navarra · Spain
 Telf. 34 948 23 93 36 · Fax. 34 948 23 82 16
www.espacegrafic.com
 e-mail: info@espacegrafic.com

**LEKUONA
ARKITEKTURA**

IKIMILIKI! Tolosa. Mendia Herria
 San Esteban 8 31780 Bera 948625403; pilotegi bidea 12. 617b Ieara Donostia 943224848

ping pong

Londoneko olinpiar jokoetan urrezko domina guztiak irabazi dituzte ping pongean. Txinan izarrak dira ping pong jokalariek, eta haien argazkiak ikus daitezke Coca Cola latetan. Jokoa eta, era berean, jolasa den jarduera honek adin guztietako jendea erakartzen du Txina osoan. Auzoak osatzen dituzten etxe orratzen erdialdeko parkeetan ez dira inoiz falta ping pong mahaiaik.

ping pong

They've won all the gold medals for ping pong at the London Olympics. Ping pong players are stars in China and you can see their photos of tins of Coca Cola. This game, which is also a sport brings people of all ages together in China. There are always ping pong tables in the parks between the skyscrapers.



TXINAKO PILOTARIAK

txinatar appetizer-ak

Txinatarrek bere kabuz ibiltzeko gaitasuna duen oro jaten dutela esaten da. Ez hori bakarrik. Oso osorik jaten dute. Tripakiak, hesteak, burmuinak, kartilagoak, eta gure merkatuetatik desagertu diren hainbat jaki maisuki prestatzen dituzte Txinan. Aurkikuntzen artean, astoaren haragiarekin eginiko ogitartekoak. Astoaren zakila jateko gogoa bai, baina ez genuen aurrekonturik. Garestiegia gure poltsikoetarako.

chinese appetizers

It's said that the Chinese are capable of eating anything. It's not just that. They eat absolutely everything. Tripe, intestines, brains, cartilage and many other things which are no longer available in our markets are masterfully cooked in China. One discovery is donkey meat sandwiches. We wanted to eat a donkey's dick, but didn't have enough money. It was too expensive for us.



13 milioi

Txinako errepideetan egunero azaltzen dira Konfuzio, Buda, Mahoma, Jesukristo eta esistitzen diren jainko guztiak. Eta ez dago elkarren arteko konpetentziarik, guztientzako lana dago eta. Dagoen ibilgailu kopuru itzela eta zer modu anarkikoan gidatzen den ikusita, lan asko eta ongi egiten dutela esan genezake. Beijingen, adibidez, 13 milioi bizikletatik gora dabil egunero errepideetan. Baina hori ez da ezer Txina osoan dauden 540 milioi bizikleten aldean.

13 million

You can see Confucius, Buddha, Muhammed, Jesus Christ and all the other gods on Chinese roads every day. And there's no competition between them, there's enough work for everyone. We'd say that with the number of vehicles there are and the anarchic way they're driven they've got their work cut out. In Beijing, for instance, more than 13 million bicycles are ridden every day. But then, in the whole of China there are around 540 million bikes.



diseinua, internet
eta argitarapenak



An advertisement for saiazgetaria HOTELA. The top part features a stylized illustration of two women in red dresses standing in front of a large, circular, sunburst-like structure. The website address "www.siazgetaria.com" is written across the top. Below the illustration is the hotel's logo and name "saiazgetaria HOTELA". At the bottom, there are contact details: a telephone icon with the number "943 140 143", an email icon with "info@siazgetaria.com", and a website icon with "www.siazgetaria.com". There are also four small thumbnail images showing different hotel rooms and views.

Elur-antzara

Paul Gallico

“Elur-antzara”-ren gaiak bakardadea eta amodioa, bazterkeria eta elkarlana, gerra eta izadia dira. Baztertuta bizi den artista baten eta neska umil baten istorio hunkigarria kontatzen digu Paul Gallico-k. 1941etik, “Elur-antzara” ez da inoiz falta izan Ingalaterrako eta AEBetako liburu-dendetan.

Dagoeneko
salgai

HamaikaBooks

su txikiak

Bat batean, parke batean, norbait paper batzuei su ematen ikusten baduzu, ez larritu. Piromano bat izateko % 0,01eko aukera dago soilik. Txinan, norbait hiltzen denean, haren senideek eta lagunek opariak bidaltzen dizkiote, dirua, erlojuak, kotxeak eta bitxiak inprimaturik dituzten paperak errez. Ah, eta hilerrriak existitzen dira! Beijinen ikusi ditugu. Zizareak eta harrak potolo-potoloak diren belardi lauetan...

small fires

If you suddenly see somebody in a park setting fire to some bits of paper, don't worry. There's only a 0.01% chance that it's a pyromaniac. When somebody dies in China, their relatives send them presents by burning bits of paper with money, watches, cars and jewels printed on them. Ah, and there are cemeteries! We've seen them in Beijing. There are very fat worms on the lawns...



sokatira txinatarrak

Garai bateko kartel eta mural sozialista klasikoak ia desagertu dira kaleetatik. Eta, sozialismo txinatarrak aldatuz joan den moduan, mezu hori irudikatzen duen ere aldatu da. Gobernuaren propaganda departamentuan lan liluragarriak gauzatu zituzten artista askok. Ezin dugu gauza bera esan egun departamentu berean ordenagailu baten aurrean photoshoparekin dabilen diseinatzaileen inguruan. Sokatira kartel hau, adibide.

volkswagen santana

Volkswagen Santana autoa instituzio bat da Txinan. 1982an hasi ziren modelo hau ekoizten Shangain. Eta berehala bihurtu zen Txinako kotxerik kuttunena. Oraindik eskari asko jaso eta oso preziatuak dira, batez ere taxi gidari eta polizia mota batzuen artean. Hala ere, VW Santana bezalako ikonoa ekoizteari utzi diote, ikono berriei paso emateko. Txinan, 26 urtetan, 3.213.710 VW Santana saldu dira.

volkswagen santana

The Volkswagen Santana is an institution in China. They started making this model in 1982 in Shanghai. And it quickly became China's best-loved car. It's still in great demand, particularly amongst taxi drivers and a certain type of policeman. Even so, they've stopped making the iconic VW Santana to make way for new icons. Over 26 years in China 3,213,710 VW Santana have been sold.



banana txinatarrak

Izen horrekin izendatzen dituzte txinatarrak mendebaldeko herrialde batean jaiotako txinatarrak. Horietako asko, egun Txinan bizi badira ere, banana txinatarrak izango dira betirako. Zergatik? Kanpotik horiak direlako baina zuria barrutik. Txinatarrak ere nahikoa arrazistak dira. Zer uste zenuten, ba, arrazakeria soilik zuritxoaren "dohain" bat zela, ala?

chinese bananas

That's what Chinese people call Chinese people born in western countries. Many of them, although they now live in China, will always be Chinese bananas. Why? Because they're yellow on the outside but white inside. The Chinese, too, are pretty racist. Did you think that racism was an exclusive "gift" for white people to use?



ile apaindegiak

Beijing erdialdean eta gune turistikoetan, zurren kale mailan dagoen denda edo negozioirik ugariena ile-apaindegiak dira. Horren arrazoia? Ba, ile apaindegietan, ilea mozteaz gain, denetarik topa dezakezula. Ile apaindegi itxura izan arren, ilea moztu bai, baina beste zerbitzu batzuk ere eskaintzen dituzte. Ze beste zerbitzu? "Massage" kontzeptua erabiliko dugu...



chinese tug o' war

The old socialist posters and murals have almost disappeared. And, in the same way that Chinese socialism has changed, so has the way it's represented. Many artists do amazing work at the government's propaganda department. But we can't say the same thing about the people who use Photoshop at the department. Look at this poster, for example.



begiak borobildu

Txina, Japonia eta Hego Koreako neska askok beren begien izaera naturala aldatu nahi izaten dute. Nolabait esatearren, borobildu edo mendebalderatu nahi izaten dituzte begiak. Ebakuntza estetikoa egitea da aukeretako bat, baina halako erabaki muturrekoa hartu nahi ez dutenek beste trikimailu batzuk erabiltzen dituzte. Hedatuena, betazala bekainaren behealdeko azalarekin itsasten duen latexeko tiratxo garden txikiak.

make your eyes round

Many girls in China, Japan and South Korea want to change the way their eyes are naturally. To put it one way, they want to make their eyes round and western. Having plastic surgery is one option, but people who don't want to go to such extremes use other tricks. The most widely used one is using a small, transparent latex plaster to pull the lower eyelid further down.



BAZAR TXINATARRA

hairdressers

In central Beijing and in the tourist areas, hairdressers are probably the most common type of shop or business in the streets. Why's that? Because as well as getting your hair cut you can also buy anything you want there. Although they look like hairdressers, they also offer other services there too. What other services? Let's call it "Massage"...

eraikinak

Beijingeko etxe orratz asko letra gorri erraldoiez izendaturik daude goialdean. Ez dira iragarkiak izaten, baizik eta etxebizitzaren edo urbanizazioaren izenak. Hainbeste etxe orratz eta eraikin bloke berdintsu dauden hiri batean, ezberdintzen zaituen zerbait bilatzea behar bat bilakatzen da. Eta bakoitzak bere nortasunari eusteko behar horrekin, hiriko paisaiari bakantasuna eta izaera propioa ematen diote.

buildings

Many skyscrapers in Beijing have huge red letters at the top. They aren't adverts, just the buildings' or estates' names. As so many skyscrapers and blocks are the same in any one city, creating something to differentiate between them becomes a necessity. And with the need for each one to keep its own personality, the city's skyline acquires its own character.



faltsifikazioak

Txinatarrek nahiago dituzte markazkoak eta benetakoa diren objektuak. Beijingeko faltsifikazio merkatuak sudurluzez (atzeritarrez) gainezka daude. Bi motatako faltsifikazioak daude: marka ezagunen produktuen kopiak, eta beste batzuk, guretzat erakaragarriak, eta, adi kontzeptuari: "asmatutako faltsifikazioak". Argazkiari erreparatu, eta ulertuko duzue...

fakes

Chinese people prefer brands and genuine objects. The markets selling fakes in Beijing are full of long-noses (foreigners). There are two types of fakes: copies of well-known brands, and others which are of especial interest to us. Wait for it... "invented fakes". Look at the photo and you'll understand...





Azaroa 2012 November
Bilbao · Gazteiz

NAZIOARTEKO JAIALDIA
MEM ARTEEN
EXPERIMENTAL ARTS
INTERNATIONAL FESTIVAL

MEM

www.festivalmem.com



gozatu
euskaraz



beste bat!!

musika
euskaraz

Noranahi goazela. Nonahi gaudela.
Gure jendarekin. Gure iritzia adierazi
nahi dugunean, geure erara. Euskara
gure bizimoduaren osagaia da. Berezkoa
dugu. Lagunen artean, gure giroan,
gure artean euskaraz.



Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia





beijing iruditan











beijingen filmatzen: infernutik zerura eskalarik gabe

Beijingo uda partearen erdian lur hartzea, 20 milioitik gora biztanle bizi den sauna heze batean jaustearen modukoa da. Izerdiak ez du gorputzeko zirrikiturik uzten kortesiazo bisitarik gabe, eta arropak azalera itsasten zaizkizu. Arnasa hartzean, biriketaratzen duzun airea bigarren eskuko delatza usaintzen duzu. Ikara eta ezinegon sententzio batek ez zaitu utziko egunotan. Kanpobasean urruneko mendi tontorrari begira zaudenean bezalaxe. Filmaketa hau, ordea, ez da goi mailako mendi espedizio bat. Ez dago aklimatatzeko astirik, eta lanean hasi beharra dago.

Lantalde tekniko eta artistikoak osatu. Autobusa, metroa, taxia eta zapatatoko zola gastatuz lokazioak bilatu eta arduradunekin negoziaketak egin, hizkuntzaren oztipoari behin eta berriro irtenbideak bilatu, hainbat lekutan filmatzeko baimenak eskatu (berehala jabetuko zara zerbait filmatu nahi izatera, egin behar duzun azken gauza baimena eskatzea dela. Burokrazia txinatarraren kateak ez du etenik ez arrakalarik). Betebehar horiek porlan, altzairu, kristal eta errepidez jositako amarauna amaigabe batean, eta atsedetik hartu gabe, egin behar egunaren ordu eskasetan. Eskerrak bertan bizi diren lagunei. Haien dira nire sherpa, soka eta oxigeno botila.

Eta, filmatzeko unea iristen denean, azaldu behar zuen norbait azaltzen ez denean, ezer ongi aterako ez dela uste duzunean, kamera martxan jarri, rec sakatu, eta bisorearen lau pareta ikusezinek mugatzen duten mundu horretan, bat batean, beste nonbait zaude. Argiak, itzalak, formak, espazioak, aktoreen begiradak eta keinuak... ordua arte anabasa zena, pantailatxoan perfekzio bihurtzen da. Traba egiten zuen guztiak orain filmaren alde egiten duela dirudi. Objektibo aurrean dagoen mundua zurea soilik izango balitz bezala. Ekaitzaren ostean hondartza zuzentzat bakarrik geratzen denean bezalaxe. Istant labur batez Jainko. Eta ez duzu stop botoia sakatu nahi. Badakizulako une horretan, pantaila beltzean jarri eta menia amaituta, paradisuatik infernura itzuliko zarela. 24 orduz kamera piztuta nahiko zenuke, eta Beijing leihatilatxo horretatik soilik begiratu.

Hiriaren zurrunbiloan, momentu labur horiek eternitate bat dirudite. Horregatik gozatu dut inoiz ez bezala Beijingen filmatzen.



filming in beijing: from hell to heaven without stairs

Landing in Beijing in mid-summer is like going down into a wet sauna inhabited by 20 million people. Sweat leaves not a scrap of you unvisited and your clothes stick to you. When you breathe in you get the sensation that the air in your lungs is second-hand. You never lose the sensation of fear and not being able to keep still. As if you were looking at a mountain top from your base camp. However, this film shoot isn't a top level mountaineering expedition. There's no time to get acclimatised and you have to start work right away.

Get the technical and artistic team together. Use the buses, the metro, taxis and your shoe-leather to find locations and then negotiate with the people in charge there, keep on finding solutions to cover your ignorance of the language, ask for permission to film in many places (you soon realise that if you want to film somewhere the last thing you should do is ask for permission. There are no cracks in Chinese bureaucracy). Doing all that in the unending spiders web of concrete, steel, glass and roads, without stopping for a rest, is what you have to do in the scarce hours of daylight. Thanks to my friends who live there. They're my Sherpas, ropes and oxygen bottles.

And when it's time to film, and someone who should show up doesn't, and you think nothing's going to get done, you start filming, press rec, and suddenly, within the four walls of the visor, you're somewhere else. Lights, shadows, forms, spaces, the actors' eyes and gestures... it had been chaotic until now, and it becomes perfect on the screen. It seems as if everything that had been working against it is now working for the film. As though what's in front of the lens were your exclusive world. Just like when you have the beach to yourself after a storm. You're god for a brief moment. You don't want to press stop. You know that then, when the screen goes black, the truce will be over and you'll go back from paradise to hell. You'd rather have the camera running 24 hours a day and just look at Beijing out of a little window.

The city's sounds seem like an eternity for that brief moment. That's why I've never enjoyed filming anywhere as much as I have in Beijing.

beijing filmak beijing films

New York, London, Paris, Berlin... the world's large, cosmopolitan cities play their parts in films time and time again. Sometimes they are the backdrop, in other films they almost become the stars. Beijing is less well known to "long noses" (that's a way to say foreigners), but this old city has appeared in numerous films. This is our list:

And, having drawn up one list, we can't resist the temptation to draw up another one of the Shaw Brothers and Golden Harvest Kung Fu films we were brought up on. Here are five jewels for people who want to get into the world of Kung Fu films.

- 1 **Vengeance** (1970) Chang Che
- 2 **Farewell My Concubine** (1993) Chen Kaige
- 3 **Beijing Bastards** (1993) Zhang Yuab
- 4 **In The Heat For The Sun** (1994) Jiang Wen
- 5 **Frozen** (1996) Wang Xiaoshuai
- 6 **Keep Cool** (1997) Zhang Yimou
- 7 **Xiao Wu** (1998) Jia Zhang Ke
- 8 **Crouching Tiger, Hidden Dragon** (2000) Ang Lee
- 9 **Big Shot's Funeral** (2001)
- 10 **Letter From An Unknown Woman** (2004) Xu Jinlei

- 1 **Way Of The Dragon** (1972) Bruce Lee.
- 2 **Challenge Of The Masters** (1976) Liu Jian-Liang
- 3 **The Drunken Master** (1978) Yuen Woo-Ping.
- 4 **Shaolin Temple** (1982) Chang Hsin-Yen.
- 5 **Crouching Tiger, Hidden Dragon** (2000) Ang Lee

New York, London, Paris, Berlin... munduko hiri handi eta kosmopolitiek behin eta berriro antzetzen dute beren papera film ezberdinetan. Batzuetan dekoratu eta paisaia gisa, beste batzuetan protagonista ere bihurtzen direla esan genezake. Beijing, aipatutakoak baino hiri ezezagunagoa da ikusleko "sudur luzeentzat" (atzerritarra izendatzeko esamoldea), baina hamaika dira hiri zahar hau erakusten dizkiguten filmak. Hona hemen gure zerrenda:

Eta zerrenda kontuekin gabiltzanez ezin izan diogu tentazioari eutsi eta haurtzarora Shaw Brothers eta Golden Harvest ekoiztetxeen kung fu pelikulak ikusten hazi eta hezi ginenez...hona hemen kung fu pelikulen munduan barneratu nahi duenarentzat ezinbestekoak diren 5 altxor.





herrialde oso bat telebistari begira: made in china telesailak

Azken bost urteetan, Txinako fisikozko telesailen ekoizpenak gorantz egin du. Bataz beste, 40 atal duten telesail hauen % 30 besterik ez da emitituko Txinako telebistan. Beste guztiak internet bidez, DVDan edo eta Taiwan, Hong Kong eta Asiako beste herrialde batzuetan soilik emitituko dira. 1977 eta 1984. urteen tarte horretan azaldu ziren lehendabiziko telebistak Txinan. Telebista horien jabeen artean nagusiki politikariak eta militarrek. Familia arruntek ez zuten telebistarik izateko aukerarik. Garaiko telesail guztiak propaganda sailak ekoizten zituen, eta gaiak, nola ez, politikoak eta belikoak.

1984tik aurrera, atzerriko lehen telesailak sartzen hasi ziren, nagusiki Japonia, Hego Korea eta Hong Kong-tik. Modu horretan, kanpoan ekoiztutako misterio, suspense, familia arazo eta arte martzialen telesailak ikusiko ziren lehendabiziko aldiz Txinan. Telesail haien gaiak eta musikak lehergai baten moduan egin zuten eztanda garaiko Txinan. Arratsaldero, zortzietatik aurrera, hirietako kaleak hustu egiten ziren, telebista zuten etxeak bizilagunez bete eta zine txiki eta inprobisatu bihurtzen ziren. Arrakasta hark propaganda telesailak alboratzera eta Txinako eleberrri klasikoetatik edatera eramane zuten ekoizleak. *Mendebalderako bidaia* eta *Pabilioi gorrian ametsetan* izan ziren Txinako gobernuak baimendu zituen lehen super ekoizpenak. Grabaketak irauten zuen bitartean, aktoreak, zuzendariak, muntatzaileak eta bestelako langile guztiak elkarrekin bizi ziren. Mendebalderen gau giro eta aisialdi ohituren ezean, telesailak ikustea berehala bihurtu zen Txinatarren denbora-pasa kuttunena.

1990tik 2000ra, telesailen kopurua eta edukia Txinako ekonomiaren erritmoa hazi da. 80eko hamarkadan edukiak nobela klasikoetatik ateratzen bazituzten, 90eko hamarkadan nagusiki genero poliziala, historikoa, arte martzialak, komedia eta familian oinarritutako gizarte gaiak jorratu zituzten. Telesailen arrakastak eta eskariak ikus-entzunezko industria sendo bat sortu zuen inguruan.

Azken urteotan, telesailen ekoizpenak gorantz egiten jarraitzen du, eta diru asko inbertitzen da, baina ikusleagoa nekatzen hasia den sintomak eman ditu. Aktoreak dira telesailen erreklamo nagusia, eta arrazoak horrexegatik aurrekontuen % 40 poltsikoratzen dute, eta telesailen kalitateak sufritzen ditu ondorioak. Hala ere, egungo arazorik larriena telebistak jorrotzen dituzten gaiak dira. Gazteei galdetuz gero zein diren beren telesail kuttunak produktu amerikarrak aipatzen dituzte beti. Eta bide batez aipatzen dute egungo telesail txinatarrek Txinako irudi kosmopolita ematen duen propaganda politikorako tresna izaten jarraitzen dutela.

a whole country watching television: made in china tv series

In the last five years the production of tv series in China has increased. On average, only 30% of these series, which have 40 episodes each, are shown on Chinese television. The rest are only shown on the Internet or in Taiwan, Hong Kong or other Asian countries. The first televisions appeared in China between 1977 and 1984. Most of the owners of tv sets were politicians and military people. Ordinary families had no chance of owning a set. All the series of the time were full of propaganda and the subject matter, of course, was political and military.

From 1984 the first foreign series started being shown, mostly from Japan, South Korea and Hong Kong. That was how foreign-produced mysteries, suspense, family stories and martial arts tv series were seen for the first time in China. Those series' subject matter and music went off like an explosion in the China of the time. Every evening, from eight onwards, the city streets emptied and people crowded into the houses which had tv sets, which became improvised cinemas. That success led producers to stop making propaganda series and start adapting classical Chinese novels. *The Journey Westwards* and *Dreaming in the Red Pavilion* were the first productions permitted by the Chinese government. During recording, the actors, directors, production teams and all the other workers lived together. Not being able to enjoy western night-life and leisure, watching tv series quickly became the favourite passtime in China.

Between 1990 and 2000 the number of tv series and their contents grew at the same pace as the Chinese economy. While classical novels were the basis of most series in the 80's, in the 90's they were mostly police, historical, martial arts, comedy and family series. The tv series' success led to a strong audio-visual sector growing up around them.

In recent years the production of tv series has increased, and a lot of money has been invested in them, but there are signs that the spectators are starting to tire. The actors are the tv series' main attraction, and because of that they take home 40% of all the money, which leads to lower quality in the series themselves. However, the biggest problem is the series' subject matter. When young people are asked, they always say that their favourite series are American. And they also mention the fact that contemporary Chinese series are propaganda vehicles to give a cosmopolitan image of the country.



vivian cao

Telebista asko ikusi badu ere babes katodikoa eskaintzen dio bere orrazkerak.
Even she watches a lot of tv, she is protected from cathodic rays thanks to her hair style.

no comment

argazia/shot :uxeta labrite • beijing

Azken urteotan, behin eta berriro entzun eta irakurri dugu arkitektura-komunikabide espezializatuetan Txina dela arkitekto estudioen paradisu berria. Ekialde hurbileko "petro-hiriekin" bat, komunismo kapitalistaren asmatzaileek arkitektura izar esanguratsuenak erakarri dituzte. Beijinen ospatu ziren joko olinpiarren aitzakian, gainera, diru kopuru izugarriak ordaindu dizkiete eraikuntzaren jainkotxoei beren izenak hiriarekin lotu ahal izateko. (Ez dugu Txinaraino jo behar hori ikusteko. Joera globala da. Esate baterako Ondarroan Calatravaren zubi bat beharrezkoa zela otu zitzaion behin norbaiti...)

Kontua da, giza eskubideak errespetatzen ez dituen herrialde honetan, munduko arkitekto ezagunenek ukabilkadak ematen dizkiotela elkarri beren sinadura uzteko. Eta etzazuela espero inolako kritikarik. Sir Norman Fosterrek erreginaren aurrean bezalaxe makurtzen du bere gerri zaharkitua Txinako Errepublika popularreko agintarien aurrean. Beno, bada kritiko azaldu den bat. Beijingo Arte Ederretako unibertsitatearen eraikuntzaren egilea den Arata Isozaki (Bilboko etxe orratzaren egile berak) oso kritiko ageri da azken urteotako Txinako politika arkitektonikoarekin. Aberats berrien sindromeak jotako herrialdea dela esan du, eta modu ireki eta ausartean kritikatu egin ditu eraikuntzen, diseinuen, materialen eta lanen kalitatea.

Joko olinpikoetarako egin ziren eraikin enblematikoen zerrendari segida eman zion proiektu esanguratsuenak, Rem Koolhaas eta Ole Scheeren arkitektura-estudioen proposamen ikusgarriak izan ziren. Txinako telebistaren (CCTV) gune berria, eta Beijing Mandarin Oriental hotela izango zena. 2004an hasi zituzten eraikuntza lanak. 2009ko otsailaren 9an, urte berri txinatarren ospakizunetan, norbaitek su artifizialak piztu zituen hotela izan behar zuenaren eraikinean... eraikinaren barruan. Haren ondorioz, eraikinak su hartu zuen. Ez zen besterik gabe apur bat kiskali; eraikina bota behar zela erabakitzeraino erre zen. Eta, ezin denez dinamitaz egin, oraindik ere ari

dira eraikina desegiten, eskuz, habez habe. Sutean suhiltzaile bat zendu zen. Piroteknikoetara jolasten metxa piztu zutenak exekutatuak izan ziren (ez genuke negarrik egingo basoei su ematen dietenekin ere gauza bera egingo balute, serio). Beijindarren artean bada txantxa moduko bat gertakizun haren inguruan. Sutearena ez dela harritzekoa, diote, hotela zakil bat zirudielako eta telebistaren eraikina alu bat. Eta zakila, aluaren aurrean egon eta sartzeko aukerarik ez zuenez, gehiagi berotu eta gertatu behar zena gertatu zen. Umore horia.



sua! sua!
beijing-eko arkitektura

